

## **KONTROL MOZIOA**

### **TOPOAREN OBRAK DIRELA ETA**

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko azaroaren 16an Gune Publikoko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Topo-igarobide proiektu berriaren obra-aurreikuspenak ez daude polemikaz libre. Lehenik eta behin, jada, 2012an Lugaritz-Kontxa eta Kontxa-Morlans eraikuntza-obrak lizitatu zirelako presaka, Donostiako Udala aintzat hartu gabe, eta gerora jakin dugunez, esleipen horiek baliogabetzeak 1,7 milioi euroko kalte-ordaina suposatu duelako herritar guztion poltsikotik. Igarobide-proiektua gauzatzeari dagokionez, nahiz eta oraindik ez diren Lugaritz-Mirakontxa eta Mirakontxa-Easo zatien Eraikuntza Prozesuen idazketak amaitu, jakina da eraikuntza-obrak urtetan luzatuko direla eta afekzio handiak izango dituztela udalerrian eta herritarrengan; besteak beste, hirigunean, hiri-trafikoan, komertzio txikian edo dBus zerbitzuan. Halaxe diote Donostiako Tranbia Konpainiak 2012 eta 2014an egindako txosten teknikoek eta Udaleko Hiri Azpiegituren Sailak 2014an egindakoak.

Udal Gobernuaren ardura honen inguruan interpelaturik, afekzioak murrizteko asmoaz gain, Udalbatzako talde politikooi ez zigun afekzioen inolako azalpenik eman, ez konpromiso zehatzik adierazi, ezta txosten teknikoaren informaziorik erraztu ere. Ikusita dagoeneko eraikuntza prozesuan idazketak hastear direla, eta ikusita dagoeneko erakunde-arterko lehen jarraipen eta kontrol batzordea egin dela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA:**

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Topo-igarobidearen obra eta azpiegituraren afekzioak aztertu eta baloratzeko, beharrezko txostenak eska ditzala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari kaltetuak izan daitezkeen eragileekin (merkatariak, dBus, auzo elkarteak...) konpartitu eta adostu ditzala hartu beharreko neurri zuzentzaile, aringarri eta, hala baloratuko balitz, konpentsazio ekonomikoak.

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

---

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

3.- Udaltzakerak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, erakunde-arteke jarraipen eta kontrol batzordean, beharrezko neurri eta konpentsazioak galde egin diezazkiela erakunde sustatzaileei.

Donostian, 2015eko azaroaren 20a

Axier Jaka Goikoetxea  
**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**